




BABESLE DOSSIERRA

love be veggie!

URRIAK 31 | AZAROAK 1

FICOBA



be veggie!


8. EDIZIOA

EUSKADIKO JAIALDI BEGANOA



Be Veggie 2019tik **bizitza % 100 begetala bultzatzen duen ekitaldia da,** proposamen osasuntsuak, animalien ustiapenik gabekoak eta ingurunearekiko jasagarriak direnak.

Eta zure marka bertan egongo balitz?



ZER DA HAU?

EKITALDIARI BURUZKO DATU BATZUK



batezbesteko
erakusketari kopurua

62



pozik edo oso pozik bukatu
duten erakusketarien batez-
besteko %a

82%



batezbesteko bisita
kopurua

6.016






ekitaldiarekin pozik
geratu diren bisitarien batez-
besteko %a

81%



Be Veggie proposamen % 100 begetalak ezagutzeko lekua da, antzeko interesak dituzten pertsonekin topo egiteko, eguna pasatzeko, zuzeneko musikaz gozatzeko eta egun osoan zehar antolatzen diren hitzaldi eta tailerrekin ikasteko topagunea da.


Be Veggie Ficobako (Gipuzkoako erakusketazoka) talde profesionalak antolatutako ekitaldia da (www.ficoba.org)



VANETTA


vegetal que para la trad






BISITARIAK

ZEIN DATOR BE VEGGIE-RA?




Be Veggie penintsulako iparraldeko eta Frantzia hego-mendebaldeko jendea erakartzen dut batik bat. **Bizimodu osasuntsu, iraunkor eta animaliekiko zein ingurumenarekiko errespetuzkoa izan nahi duten pertsonak erakartzen ditugu; bai beganoak, bai beganoak ez direnak baina %100 jatorri begetaleko elikaduraren eta kontsumo arduratsuaren aukerak ezagutu nahi dituztenak.**

Be Veggie 2025en, ekitaldiak 5.703 bisita jaso zituen.




Lehengo urtean Be Veggie-k jasotako publikoaren %78 gipuzkoako udalerrietatik etorri zen; Iparraldetik etorri zen publikoaren %7,5a.

Publikoaren %11 Euskadiko beste probintzietatik eta Nafarroatik etorri zen, %3a estatuko beste erkidegoetatik etorri zelarrik.



Publikoaren %56,10 beganoa ez zela adierazi zuen. %19,60 ordea, begano bezala identifikatu ziren, gainontzeko %24,30 begetariano edo flexitariano dela adierazi zuen.

Festibalak jende anitza erakartzeko indarra dauka, interes desberdinak dituen publikoa izan ere, baina Be Veggien euren elkargunea aurkitzen dutenak.



Publikoaren adinari dagokionez, %44,5 45 urte baino gutxiago zituen.

BABES AUKERA 1

Aprobetxatu Be Veggie-k eskaintzen duen eszenatokia, zure markak konektatu nahi duen publikoarekin bat egin dezan.

Egizu zure marka ikusgarri zure bezero potentzialak dauden tokian, xehetasun guztiak zaintzen dituen ekitaldi batean, kalitate handiko eduki informatiboa eskaintzen den lekuan eta publikoak esperientzia oso positiboa bizi duen testuinguruan.

Babestu egitarauko **jarduera bat**


Zer du barne?



Babestutako jardueraren aurretik publizitate spot-a **SUKALDEAN** edo **BERRIKETAN** guneko pantailan



ENPRESAREN LOGOA jardueraren ondoan web



Markaren aipamena jarduerari buruzko komunikazioan (sare sozial eta newsletterrean)

800 € + BEZ-a

Jarduerak sorrarazten dituen kostuak enpresa babesleak ordainduko ditu.

BABES AUKERA 2

Zer du barne?




4m x 1,5m metroko olana **SUKALDEAN** espazioan



SUKALDEAN guneko pantailan bideo-iragarkia (showcooking-en artean)



Web guneko oinean logoa ezarri beveggie.eus



Publikoari zuzendutako mailing kanpainan banner bat ezarri (6.000 harpidedun)




Zure markaren edukia [@beveggie.ficoba](https://www.instagram.com/beveggie.ficoba) profilean · 4.712 jarraitzaile · **post** (behin, adostutako edukiarekin) **eta stories bidez** (3 aldiz, stories partekatuz)



Spot en la pantalla LED exterior de Ficoba la semana del 26 de octubre y durante Be Veggie (hasta el 1 de noviembre)

2.450 € + BEZ-a

OLANA SUKALDEAN



SUKALDEAN BE VEGGIE-KO ESPAZIO ARRAKASTATSUENETAKO BAT DA.

EUSKARRI HONEK EZ DITU SOILIK SHOWCOOKING-ETARA BERTARATZEN DIRENAK ERAGITEN, BAIZIK ETA PABILOIRA SARTZEN DEN JENDE GUZTIA, SARRERAREN ONDOAN KOKATUTA DAGOELAKO.

IKUSGARRITASUNA ETA ERAGINA BERMATUTA.



SHOWCOOKING-EN ARTEKO ATSEDENETAN, ZUEN MARKAREN SPOT BAT (IRUDIA) ETENGABE EMANGO DA, MARKAREN IRUDIA LONAN AGERTZEAREKIN BATERA.

KANPOKALDEKO LED PANTAILA

Erakusketazokaren kanpoaldeko gunean, led pantaila handi bat eskaintzen dizugu zure marka zure spot edo irudi estatikoarekin iragartzeko.

Tamaina handiko publizitate-euskarria, mugan kokatua, egunero 14.000 ibilgailuk zeharkatzen duten tokian.




14.000
ibilgailu/
egunean

45
inpaktu/
orduko

Noiz?

Urriak 31, larunbata eta azaroak 1, igandea

- **Larunbata:** 10.00 - 20.00
- **Igandea:** 10.00 - 18.00




Non?

Be Veggie FICOBAn ospatzen da, Gipuzkoako erakustazokan. FICOBako instalazioek **70.000 metro karratu** baino gehiagoko azalera dute eta **% 100 iraunkorrak** dira. Eremua azokak hartzeko diseinatuta dago espezifikoki eta muntatzeko eta desmuntatzeko erraztasun guztiak eskaintzen ditu.



Ficobak **DOAKO aparkalekua dauka, 1.000 lagunentzako** edukierarekin. Eta Topo geltokia dauka, zuzenean Donostiarekin eta Hendayarekin konektatzen duena.

Be Veggie-ra etortzeaz gain, turismoa egiteko aukera paregabea eskaintzen dizu. Abenduko veggie-zubian, **Hondarribia** (4 km-ra), **Donostia-San Sebastián** (20 km-ra), **Biarritz** (30 Km-ra), **Zumaia** (50 Km-ra) edo **Bilbo** (80 Km-ra) bezalako hiriak izango dituzu eskura.



beveggie!

Jarri zaituz gurekin harremanetan:

beveggie@ficoba.org | 943 66 77 88 | www.beveggie.eus